

Hanna Lantto. Hizkuntzalaria



Helsinki bizi da Hanna Lantto (Helsinki, Finlandia, 1981), baina ia urtero Euskal Herrira etorri eta bizpahiru hilabete eman ohi ditu gurean. Euskararekiko jakingura 2000. urtean piztu zitzaion eta, ondoren ezagutza, erabilera eta ikerketa etorri ziren. Euskaldunon hizkuntza ohituren behatzaile, duela bi urte doktorego tesia egin zuen *euskañol*-aren gainean eta, egun, hiztun berriak aktibo bihurtzeko prozesua ikertzen ari da.

“Bereziki interesatzen zait hiztunek nola eraikitzen duten Bilboko euskara informala”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: INIGO AZKONA

Isiltasuna

“Askotan arau sozialak apurtzen ditut, nahi gabe. Adibidez, finlandiarrok oso eroso gaude isiltasunean, ez dugu sentitzen une isilak betetzeko beharrik. Nire Euskal Herriko lagunak batzuetan urduri jartzen dira horregatik. Gogoan dut gau batean lagun batekin etxerantz gindoazela. Ni nire artean pentsatzen ze pozik nengoen, ze polita zen gaua, zelako lasaitasuna inguruan... Eta lagunak bat-batean: ‘Baina zer duzu? Oso nekatuta zaude ala? Zergatik ez duzu hitz egiten?’. Behin baino gehiagotan gertatu zaizkit antzeko gauzak”.

Nolatan hasi zinen euskara ikasten, eta nolakoa izan da zure ibilbidea euskaran?

Hispaniar filologia ikasten ari nintzen 2000. urtean Helsinki. Nire katedradunak euskaraz bazekien eta lehenengo ikasturtean ikastaro txiki bat eman zigun. Metodo bereziak zituen hark, buruz ikasgarazi baitzigun Aita Gurea. Uler-tu gabe ere, euskararen soinua gustatu zitzaidan. Aurretik banuen euskararen berri, izan ere, Finlandian, unibertsitatean sartzeko azterketan linguistika ikasi beharra dagoela eta, euskara ageriz ikasgaian, hizkuntza irla delako eta egitura interesgarriak dituelako.

Ordurako poliglota zinen. Zenbat hizkuntza dakizu?

Hizkuntza askoren oinarritzeko ezagutza dut, baina bederatzi menperatzen ditut. Hala ere, guztiak ez daude aktibatuta aldi berean. Adibidez, portugesearen C2 azterketa egin dut, baina oraintxe norbaitekin hitz egiteko beroketa beharko nuke. Egunero bost hizkuntza erabiltzen ditut orain: gaztelania, euskara, ingelesa... Etxean suomiera eta estoniera erabiltzen ditut, senarra estoniarra dudalako.

Zerk erakarri zintuen euskarara hurbiltzeko?

Soinua gustatu zitzaidan, fonologia, eta batez ere eraikuntza, aditz laguntzailearen sistema, ergatiboa. Badira gustatzen zaizkidan hitz eta izen batzuk: baserritarra, Larrabasterra... Hizkuntza minorizatuak beti interesatu zaizkit, unibertsitateko nire lehenengo urtean uraldar hizkuntzak ikasi nituen eta euskara, horiek bezala, ez da indoeuroparra.

Finlandiera ere ez da indoeuroparra baina ez dago bakarrik.

Bai, uraldar hizkuntzen multzokoa da suomiera edo finlandiera, estoniera, eta hungariera dira ezagunenak baina Errusian uraldar hizkuntza asko daude. Laponiako samiera hizkuntzak ere familia horretakoak dira.

Bilboaldeko euskaldunen *code switching* edo *euskañol*-a ikertu zenuen doktorego tesian.

Sailkapen asko daude eta kode alternantziaren inguruan eztabaidak daude funtzio pragmatikoak izan behar dituen edo ez. Niretzat zabala da kontzeptua, agian



ezin izango dut hori zientifikoki justifikatu baina niri gehiago interesatzen zait hizkuntzan gertatzen dena, eztabaida terminologiko horiek baino; adibidez, bilbotarrek nolako elementuak erabiltzen dituzten erdaratik hartuta. Diskurtsoaren markatzaileak ia beti erdaraz dira: *eske*, *aber*, *osea*... gaztelania pragmatikoki hizkuntza gailena delako. Batzuek diote hori kode alternantzia ez dela, baina... Hitz arruntak eta gordinak ere erdaratik hartuta erabiltzen dira.

Tesian Arratiako eta Bilboaldeko euskañol-ak alderatu zenituen?

Ez, euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak alderatu nituen. Arratiako euskaldunek *code switching* gehiago egiten zutelako konturatu nintzen. Bilboaldean bizi diren euskaldun zahar asko ez dira jatorriz bilbotarrak, eta Bilbon ere gehiago erabiltzen dute *code switching* hori euskaldun berriek baino. Hitzun berriek, aldiz, gehiago bereizten dute noiz ari diren erdaraz eta noiz euskaraz. Zaharrek ez bezala, agian uste dute *euskañol*-a erabiliz gero jendeak pentsatuko duela ez dakitela euskaraz ondo. Hiz-

“Hitzun berriek askoz gehiago bereizten dute noiz ari diren erdaraz eta noiz euskaraz. Hitzun zaharrek berriz, hizkuntzaren autoritatea sentitzen dute, kode alternantzia egin arren inork ez duela zalantzan jarriko euren euskalduntasuna.”

tun zaharrek hizkuntzaren autoritatea sentitzen dute, kode alternantzia egin arren inork ez duela zalantzan jarriko euren euskalduntasuna.

Zerbaiten adierazle da *code switching* hori, diglosiaren testuinguruan?

Egoera arruntetan askoz gehiago egiten da kode alternantzia. Akaso gaztelaniaren nagusitasunaren adierazle da, azken finean Bilbon jendeak euskaraz ari denean egiten baitu *euskañol*-a. Euskara informala elebiduna da eta gaztelania informala, aldiz, elebakarra. Leku euskaldunago batzuetan entzun dut kode alternantzia euskarara jendea gaztelaniaz ari denean.

Orain beste ikerketa bat duzu esku artean, beste ikerlari batzuekin batera.

Ezin dizut askorik aurreratu, baina jendea

hitzun aktibo nola bihurtzen den ikertu nahi dugu. Adibidez, lagun askok euskaltegian ikasi arren gero ez dute erabiltzen, baina beste batzuek bai. Guri interesatzen zaigu nola batzuek ematen duten urrats hori, ikasleak izatetik nola pasatzen diren erabiltzaile aktiboak izatera, zer nolako prozesuak eta eraginak izan dituzten. Niri bereziki interesatzen zait hitzunek, batez ere batua ikasi dutenek, Bilboko euskara informala nola eraikitzen duten, horretarako kode alternantzia egiten duten, bizkaiera erabiltzen duten...

Zenbat Gara elkarte hartu duzu ikerketa gunetzat, zergatik?

Taldeak aurretik pentsatutako esparruetako bat zen eta niri toki oso aproposa iruditu zitzaidan ikertzeko. Kafe Antzokia nire Erasmus garaitik ezagutzen nuen, kontzertuengatik eta giro euskaldunagatik, baina ez nuen ezagutzen atzean zegoen guztia: Gabriel Aresti euskaltegia, irratia, argitaletxea... Bilbon bertan dago eta oso ondo integratzen ditu ikasleak. Euskaldunei, oso zahar zein oso berriei, euskararen mundua eskaintzen die, aktibatu egiten ditu. ■